

INTRANET KORPORATIBOA

SHAREPOINT ONLINE PLATAFORMAN (O365)

SARRERA.....	2
AURREBALDINTZAK	2
NOLA SARTUKO NAIZ INTRANET BERRIAN?	2
Internet Explorer	2
Microsoft Edge.....	2
Gainerako nabigatzaileak	2
ZER NABIGATZAILE ERABIL DEZAKET INTRANET KORPORATIBOAN SARTZEKO?	2
INTRANET KORPORATIBOA IKUSTEKO SAIOA HASI BEHAR DUT?	3
Erabiltzailea	3
Pasahitza.....	3
ZER EGIN BEHAR DUT SARTZEN NAIZEN LEHENENGO ALDIAN?	4
NOLA ITXI SAIOA?.....	4
OSAKIDETZAREN SARETIK KANPO ERE SARTU NAITEKE?	4
PARTEKATUTAKO ORDENAGAILU ETA TOKIETAN (KIOSKOAK) NOLA JOKATU BEHAR DUT?.....	5
ZERGATIK MUGITU DA INTRANET KORPORATIBOA SHAREPOINT ONLINE PLATAFORMARA?	5
ARAZO BAT DAUKAT. NORA JO BEHAR DUT?.....	6

SARRERA

Datorren maiatzaren 16an, asteartea, Osakidetza Intranet Korporatiboa SharePoint Online (O365) plataforma berrian ibiltzen hasiko da.

Dokumentu honetan data horretatik aurrera Osakidetza Intranet Korporatiboan sartzeko eman beharreko urratsak eta ager daitezkeen zalantza batzuk argitzen saiatuko gara.

AURREBALDINTZAK

Osakidetza Intranet Korporatibo berriarekin konektatzeko Internet konexioa eta web nabigatzailea (Edge, Chrome edo Firefox) dituen gailua behar duzu.

Gida hau idazteko Windows 10 sistema eragilea duen ordenagailu korporatiboa erabili dugu, baina argibide hauek aurrebaldintzak betetzen dituen edozein gailurentzat ere balio dute.

NOLA SARTUKO NAIZ INTRANET BERRIAN?

Intranet Korporatiboan sartzeko helbidea hauxe izango da:

https://osakidetza.sharepoint.com/sites/Osakidetza_Intranet

Internet Explorer: nabigatzaile honen hasierako orria Intranet Korporatiboaren orri nagusia izango da. Hala ere, IE irekitzean Microsoft Edge nabigatzailea automatikoki abiaraziko da.

Microsoft Edge: nabigatzaile honen hasierako orria Intranet Korporatiboaren orri nagusia izango da. Hori dela eta, Edge nabigatzailea irekitzean Intranet Korporatibo berria automatikoki kargatuko da.

Gainerako nabigatzaileak: https://osakidetza.sharepoint.com/sites/Osakidetza_Intranet helbidearen bidez.

ZER NABIGATZAILE ERABIL DEZAKET INTRANET KORPORATIBOAN SARTZEKO?

Intranet Korporatiboa bisitatzeko edozein web nabigatzaile erabil dezakezu, Internet Explorer izan ezik.

INTRANET KORPORATIBOA IKUSTEKO SAIOA HASI BEHAR DUT?

Bai. Intranet Korporatiboaren bertsio berria SharePoint Online plataforman egongo da (O365). Bertan sartzeko, geure burua identifikatu behar dugu erabiltzailea eta pasahitza sartuz:

Erabiltzailea: 2 aukera daude. Lehenengoak huts egiten baldin badu, bigarrena erabili:

1. Helbide elektroniko korporatiboa (izena.1abizena2abizena@osakidetza.eus)

OHARRA: erabiltzaile batzuek jatorrizko helbide elektronikoaz gain ezizena (*alias*) ere erabiltzen dute. Sartu beharreko helbidea jatorrizkoa da, inoiz ez ezizena.

Adibidez:

Jatorrizko helbidea: francisco.arechagarmendia@osakidetza.eus

Ezizena: patxi.aretxagarmendia@osakidetza.eus

ALA

2. NAN@osakidetza.eus (11222333Z@osakidetza.eus)

Pasahitza:

- Ordenagailuan saioa hasteko ohiko pasahitza.

ZER EGIN BEHAR DUT SARTZEN NAIZEN LEHENENGO ALDIAN?

- Lan egiten duzun erakundea hautatu beharko duzu. Horretarako, Intranetaren hasierako orrian, eskuineko eremuan, zure Zerbitzu Erakundea hautatu:



NOLA ITXI SAIOA?

Irakurri [PARTEKATUTAKO ORDENAGAILU ETA TOKIETAN \(KIOSKOAK\) NOLA JOKATU BEHAR DUT?](#) atala.

OSAKIDETZAREN SARETIK KANPO ERE SARTU NAITEKE?


Bai. Intranet Korporatiboan Osakidetza saretik kanpo sartzeko (hau da, Internetetik) autentifikazio-faktore bikoitz baten bidez egiten da. Horretarako “Microsoft Authenticator” aplikazioa Android edo iOS duen gailu mugikor batean instalatu behar duzu.

Denda ofizialetara joan (Google Play edo App Store) eta “Microsoft Corporation”-ek argitaratutako “Microsoft Authenticator” aplikazioa bilatu behar duzu. Hurrengo esteka sakatuz instalazioa egiteko gida deskargatuko duzu:

[Microsoft Authenticator aplikazioa konfiguratzea.pdf](#)

PARTEKATUTAKO ORDENAGAILU ETA TOKIETAN (KIOSKOAK) NOLA JOKATU BEHAR DUT?

Intranet Korporatiboan sartzean zure Microsoft O365 profilean saio bat irekiko duzu zure kredentzial pertsonalekin. Partekatutako ordenagailu edo gailu batean saioa irekitzen baduzu (adibidez, kiosko batean), Microsoft O365-en saioa ixtea **zure ardura** da. **Zure identitatea, datuak eta lana babesteko** saioa ixtea ezinbestekoa da. Horretarako, zabaldu erabiltzailearen menua (goiko tresna barran, eskuinean) eta "Itxi saioa" sakatu:



ZERGATIK MUGITU DA INTRANET KORPORATIBOA SHAREPOINT ONLINE PLATAFORMARA?

Orain arte izan dugun Intranet Korporatiboaren bertsioa Microsoft SharePoint 2010 plataforman zegoen. Microsoft-ek produktu hori sostengurik gabe utzi du, eta mantentze- edota segurtasun-arazorik ez izateko plataforma berriago batera joateko beharra zegoen.

Horretaz gain, aldaketa hau Osakidetza O365 zabaltzeko proiektuaren barruan dago. Zabaltze hori atalka eta fase ezberdinetan gertatuko da, baina Intranet Korporatibo berria Osakidetza osoan aldi berean abiatuko da.

ARAZO BAT DAUKAT. NORA JO BEHAR DUT?

CAU Osakidetzan inzidentzia sortu (cau24x7@osakidetza.eus - 806350)

Gasteiz, 2023ko maiatzaren 9a